

HARRIA

Iñaki Palacios
Mulixka Dantza Taldea



Iñaki Palacios txistulariak (Gasteiz, 1988) "Harria" ikuskizuna eta diskoa prestatu ditu Gasteizko Mulixka Dantza taldearekin eta Iñaki Perurenarekin. 2017an "Lurra, ardoa, dantza" diskoarekin batera ikuskizuna atondu zuen Arabar Errioxako lurrek mahastietan emandako ardoarekin. 2013an ospeak gora egin zuen "Danza del Vino" kantuarekin arrakasta itzela lortu ondoren, eta urteroko "Mahats-bilketaren" jaiak doinu hori hartu zuen erreferente eta single bezala. Iñaki Palacios txistulari trebeak txistuaren kontzeptu dinamiko, berritzaile eta garaikidea dauka. Txistuaren defendatzaile sutsuak aliatuak erantsi dizkio tresnari, eta, hausnarketak, "Harria" ikuskizuna atontera ekarri du.

Iñaki Palacios, "Harria" ikuskizunaren barruan, CD bat grabatu du Oiarzungo Mecca Estudioan Mikel Ezeiza eta Igor Ezeizarekin. Grabaketa eta nahasketak 2019ko apirila, maiatza eta ekainean egin dira. Zatirik garrantzitsuen zuzenean grabatu da eta ez da egon musikari laguntailerik.

Iñaki Palacios txistulariaren bigarren diskoa da "Harria" ikuskizuna. Txistua elementu nagusi eta bateratzailea da Iñaki Palaciosen musikaltasunean. Txistuaren gainean eraiki dira, oro har, melodiak eta kantuen garapenak. Baina "Harria" diskoak baditu beste bi osagai garrantzitsu: harrizko txalaparta eta trikitia. Kantuetako asko harrizko txalapartaren doinuetatik abiatuta gorputzu dira. Harria denez kontzeptuaren funtsa, harriaren soinua harrizko txalapartaren eskutik etorri da. Tinbre hauskorra, soinu sentibera harria balioan jartzeko. Trikitiaren askotariko armoniekin txistuaren laguntzailea bilakatu da kantuei sendotasun musikala emateko. Gitarra, baxua, bateria eta samplerren ekarpenekin kantuek txinparta alaiak sorraraziko dituzte, aproposak dantzarako, edo Iñaki Perurenaren errezitalerako. "Harria" ikuskizunean Iñaki Perurenak harriarekin izan dituen bizipenak azalduko dira poesia musikatuan, gero dantza bihurtuta. Mulixka Dantza Taldeko Josu Sanchez koreografoak harriaren mortasuna atxiki die doinuei herri-kirolaren esparrura ekarri. "Harria" ikuskizunaren ardatz izango dira 8 dantzari, bost musikari eta Iñaki Perurena. Plaza eta kaleko ikuskizuna da "Harria".

320 K

Harrobiko harri hotz eta geldotik datoz entzuten ditugun kolpeak. Harri-zulatzailak dira, zeinak, konturatu gabe, kantuaren lehen notak jotzen ari diren gero dantza bilakatzeko. Mulixka taldeko dantzarien oinek ere dardaraka jarriko dute ustez plazan ahaztuta zegoen harria, eta Iñaki Perurenaren xuxurlarekin iratzarriko da bat-batean.

ZURE MAGALEAN

Eguna argitzera doa, eta honekin batera ilusioz beteriko mementoaz gozatzeko unea. "Zure magalean" ez da soilik abesti bat, proiektu berri baten hasiera ere bada. Memento onak, txarrak eta erronka berriak ekarriko dituena. Sortu nuen lehendabiziko abestia izan zen eta, ondorioz, HARRIA diskoko abestiei hasiera emateko bultzada bilakatu zen. Harriek hitz egingo balute... Isil-isilik baina entzuten egongo balira, hamaika istorio, gertakari eta kontakizunen testigantza emango ligukete. Koreografia honetan harriaren inguruan elkar ezagutu duten sei gazteren istorioa kontatuko da.

HARRIA

"Zerbait berezia du tresna honek" esan zidan etxera bisitari etorri zaitzaidan Kataluniako musikari lagun batek estreinakoz ikusi zuenean. Baietz esatearekin batera, uste dut harrizko txalapartak giro misterioitsu eta liluragarrian sartzen gaituela. Tresna gutxiak erakutsi eta transmititu ahal digu harrizkoak ematen duen indarra, eta horren bila joan naiz HARRIA diskoarekin. 1950eko hamarkadako rock & rollaren soinua entzun dezakegu hasieran, gero 1960ko hamarkadako surf rock inguruko keinuak datozkigu gitarra elektrikoaren "bigsby"-arekin, eta hau guztia nahasi dut txistua eta trikitiarekin, eta horrela iritsiko gara abestiaren pasarte melodikoenera, eta hor dantzarien oinak mugitzen ikusiko ditugu, seguru. Harria jaso aurretik hainbat errutina, prestaketa eta beroketa egin ohi dira. Erretxinaz igurti harria eta txalekoa hark ez dezan irritis egin. Erretxinaz beteriko potoekein dantzatzeko dute dantzariak, aurrean, atzean, tartean eta gainean.

ARRAITZ

"Arraitz", edo harri zorrotza, izenik egokiena da fandangoni indarra emateko. Harrizko txalaparta da diskoaren ardatz nagusia, danbolin, xilofono, karraska eta txaloeen laguntza jasoko du. Musikak argi erakutsiko digu kulturen arteko uztarketan duen garrantzi ikaragarria. Gizakiak harriaren beharra izan du betidanik eta harrobietatik eskuratzeko erabiltzen ziren lorbidak kirol bilakatu ziren, eta, orain, kirol horiek dantza. Metalak harriarekin talka egitean ateratzen duen hotsa eta indarra transmitituko ditu dantzak.

DENBORA

Japoniara joan nintzenez erakutsi zidaten bertako kulturen berandu jaikitzea oso gaizki ikusia zegoela; azken finean, denbora eta bizitza dira ditugun gauzarik preziatuenak, eta ezin da horiek alferrik galtzen utzi. "Denbora" abestia da "mottainai" kontzeptu japoniarren inguruko hausnarketa. 60 bpm-ko tempo darama, erlojuaren orratzen berbera, denbora iragan egiten da eta ezin da, inolaz ere, berreskuratu. Sintetizadorearen ehundurek eta egiturek, eta gitarra elektrikoaren "slide"-ak azalduko digute denbora ukitzearen ideia posible dela. Koreografiak ez du garrantzi handirik, gakoa irudikapenean dago. Harritzara harri-jasotzaileen harri esanguratsua bihurtzera pasatuko da.

PLAZARA!

Kalejira, biribilketa... berdin dio zer izen ematen diogun, garrantzitsuen da funtsean zer den eta zein ongi sustraiturik dagoen erritmo hau gure kulturen Erromeria edo jaietan helburu bakarra du: gu batzea, jauzi egitea, dantzatzea, barre egitea... edo, laburbilduz, haien guztien doinuekin gozatea. Harritzarrak alde batetik bestera mugitzeko modu bakarra zegoen antzina: idiek tira eginez edo gizakiak. Gaur egun ekintza gogor hori kirol bilakatu da, eta honen isla da dantza: harri-tira. Goazen plazara!!

GERTU

Beti entzun izan dut balsa dantza lotuan egiten dela. Bada, nahiz eta ez naizen trebea dantza egiteko, "Gertu" maitemintzeko kantu bat dela uste dut, gozatzeko eta dantzaren indarra sentitzeko. Ez dut ahalegin berezirik egin behar irudikatzen XVIII. mendeko Vienako areto huts batean bikote bat dantzan eta dantzan, buelta eta jira, bat egiten bira bakoitzean, denbora gelditzeke zorian hain dotoreak diren urrats horien karira. Dantzariak eta harri-jasotzaileek egiten dituzten mugimenduak agertzen dira koreografian.

OIN-PUNTETAN

Gogoan dut txikitzen etxeko gaitelen usainak zorutzen ninduela. Oraindik bero zirenean ere, oin-puntetan nindoan bat hartzera eta, ondoren, korrika bizian egiten nuen ospa. Behin eta berriro. "Tema y variaciones" formatuaren moldaketa bat da "Oin-puntetan" zeinak txistuarekin hain une onak eman dizkidan urteetan. Formatuak oraindik ekartzen dizkik gogora umetako bihurrikeria eta gogoangarri haiek. Harriak, poliki-poliki, izena jasotzen du, forma eta erabilera. Harriaren inguruan eta gainean dantzatzeko dugu.

CAUSEWAY

Irlandara joatea beti da pozgarri. Hegazkinean emandako orduak merezi dute, lagun eta familiarrekoak ikusteko izango baita. Gu denok gertuago egoteko balio duelako "Causeway" izenburua aukeratu diote abestiarri. Sláinte!!

* "The Giant's Causeway" edo "Erraldoien Harbidea", Irlandako ipar-ekialdeko kostaldearen inguruan 40.000 basaltzoko zutabe daude.

HARROBI

Karrantzako (Bizkaia) Pozalagua harrobia izan zen aukeratu genuen tokietako bat HARRIA bideoan egiteko. Paregabeko gunea da, toki gutxi duen ikusgarritasuna dauka, eta, une oro, zerbait berriaz ohartuko zara han zauden bitartean. Egun, ez dago produkzio-jarduerarik baina han egiten zirelanak irudikatze soilarekin nekea eta izerdia datozkit burura. Horregatik, "Harrobi" abestia omenaldi bat da. Zortzikoa harriarekin lan egiten duten guztientzat. Harri-zulatzaila, zizelkari, hargin, harri-pikatzaile, eta noski, harri-jasotzaileentzat. Agurra eta ezpata-dantzaren ukitua duen koreografiak harritzarrari egingo dio omenaldia.

Iñaki Palacios: txistua, bonbetea, harrizko txalaparta, samplerrak

Javi Garay: gitarra akustikoa, elektrikoa

Eneko Espino: baxua

Errando Lopez de Luzuriaga: trikitia

Iñaki Alarcia: bateria

320 K hitzak: Iñaki Perurena

ritxi aizpuru + iñaki palacios + josu sanchez
(Gasteiz, irailaren 12an)